# Euskal Birusaren webgunea martxan

**Maiatzaren 14an, Euskal Birusa elkarteak bere webgunea martxan ipini zuen. Euskara bultzatzeko tresna honek, teknologia berriak aprobetxatuko ditu herriko jendeari eta baita herritik kanpo bizi direnei ere, besteak beste, euskararen inguruan herrian antolatzen diren ekimenen berri emateko.**




Drogetenitturri aldizkariak 20 urte betetzen dituen urte honetan, elkarteak teknologia berrien aldeko apustua egin nahi du, www.euskalbirusa.org webgunea sortuz. Webgunea euskara hutsean dago eta bertan, euskararekin zerikusia duten albisteak irakurri ahal izango dira egunero, hori delako eta webgunearen atalik indartsuenetarikoa. Horrez gain, erabiltzaileen parte hartzea ere bultzatu nahi da eta albiste denak komentatzeko aukera izango dute hauek. Drogetenitturriren azken alea ere webgunean eskuragarri egongo da, pdf formatuan deskargatzeko.

Webguneak hainbat esteka ditu, Ermuko eta Mallabiko 'Ahozko ondarea'ri esaterako. Mallabikoan bada materialik entzuteko eta baita ikusteko ere; Ermukoan, aldiz, lantxoa dago egiteke, baina edonola ere, ahotsak.com-erako esteketan materiala gehitzen joango da. Horrez gain, herriko talde eta blogeetara iristeko estekak egongo dira.

Bi hilabeteko lana eskatu du webgune honek, martxoan hasi baitzen Markos Gimeno ermuarra diseinu lanetan, eta aurrerantzean ere, bera izango da webgunea eguneratzeaz arduratuko dena.

**www.euskalbirusa.org**

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea
Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43
48260 ERMUA (Bizkaia)

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com


TOLDOS Y PERSIANAS ORBE
• MUNTAIA ETA KONPONKETA
• MOTORIZAZIOA
• PERTSIANA DEKORATIBOAK
• PERTSIANA BILGARRIAK
• SEGURTASUN PERTSIANAK
• MOSKITERAK
• ESTOREAK
• GORTINAK
TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)
ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)



ZUBIAURRE
ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK
MANTENIMENDU INDUSTRIALA
Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61 Faxa. 943 17 42 17
48260 ERMUA